

HIZTEGIGINTZARAKO HITZ-ERAKETA: EGINDAKOAK ETA EGITEKOAK

Donostia, 1984-V-25

Mikel Zalbide

Ez da noski eguneroko aukera izaten gaur bezalako entzulego baten aurrean norberak bere hizkuntzaz duen zenbait uste-aburu azaltzekoa. Egia aitortuko badizu, gainera, errespetu-puntta bat ere sentitzen dut, ikasketaz eta azkenaldiko ogibidez hizkuntzaren gibel-erriak aztertzeik aldunduxea nagoen honek, halako gai bihurri bati aurrez aurre ekiteko. Puntua neronek jarria da dena dela, onerako edo txarrerako, eta honez gero hobe izango dut hortaz, luzamendu handiegitan sartu gabe, bertsoaren graziaz nekez izango duen bapateko idazlantxo hau osatu eta aurkeztea.

Hitz-eraketaren eremua ez da, giza zientzietako beste hainbat esparrutan ere sarri gertatu ohi denez, bere luze-zabalean zehazten hain erraza: hamaikatxo puntu daude, hor nonbait bere gerri-bueltan, aztergaiaren mugaz kanpora ala barrura eroriko erabakizun. Horiek asko ez direla, gainera, eremu barneko banaketa-arazorik ere ez da han-hemenka falta: gogora dezagun, hartaraz gero eta gainerakoekin seinala, hitz elkartu eta eratorrien arteko hesiarren ahula.

Aldeak alde eta eskolak eskola, halaz ere, badirudi oinarritzko puntu batzutan bederen halako eritzi-batasun bat gailendua dela alor honetan: Hans Marchand-en *The Categories and Types of Present-day English Word-formation*¹ lan ezagunak duela hogeituro urteko itzala arrunt galdua ez badu, behintzat, ez da orain ere oso oker ibiliko hitz-eraketa nagusiki hitz-elkarketaz eta eratorpenaz ari dela dioena. Nagusiki diot, noski, jakina bait da bi atal horiez gainera beste hainbat puntu ere, xume nahiz lodi, berariaz aztertu ohi duela alor honetako zenbait espezialistak: **OHO** edo **EBB** gisako laburpen-siglak, **plasti-plasta** edo **tiki-taka** moduko **ablaut**-taldeak, **handi-mandi** edo **ikusimakusi** bezalako errima-bikoteak, **mahalinguru** moduko sasi-akronimoak eta, *last but not least*, aspalditxo honetan itxuraz iturri horretara ur-bila joaten lotsatu-antxak bagoaude ere inoiz erreparatu handiegirik gabe pitxarkada betean edandako

¹ H. H. MARCHAND: *The Categories and types of present-day english word-formation. A synchronic-diachronic approach.* Otto Harrassowitz, Wiesbaden, 1960.

(edo, maizago gertatu ohi zenez, besteri eskainitako) **txadon, arauli, poielgin** gisako hitzarte hots-errenak.

Zailagoa da, noski, hitz-elkartearen nahiz eratorpenaren alorretan ahobatezko onarpena eskura lezakeen sailkapenik aurkitzea. Hizkuntza batetik bestera egon ohi diren tarte ohargarriez gainera hizkuntz fenomenoari buruzko ikuskera osoa izan ohi da horrelakoetan, sarri baino sarriago, aniztasun-iturri nagusia.

Sailkapen-erizpideen garrantzi aparta ezertan gutxietsi gabe ere, dena dela, desberdintasun guzti horien gainetiko bateraguneak aski den adinako neurrian jaso litzake, erdal bibliografia jori-aberatsean nahiz euskal baratza aukeran utzi samarrean, horien bila dabilkeen aztertzaile saiatuak.

Eta, euskal baratza aiputan hartu orduko, ezin saihestuzkoa da, alor honetan ere, mende-hasieratik gerra-garairarteko ahaleginen aipamena: taldekako nahiz norbanako lan haiek arrasto zabala utzi bait dute, egungo egunerrate, euskal hitz-eraketaren azter-eremuan. Gure hizkuntzaren morfologiaren zoko-bazter gehienak luzez eta zorrotz miratutako R.M. Azkue, bereziki, ezinbesteko erreferentzi gunea da, beste hainbat puntutan bezala, euskal hitz-elkarketaren nahiz eratorpenaren azterpidean barrena abiatu nahi duenarentzat. Eta ez da hartarako, noski, arrazoirik falta: bere Morfologia Vasca-ren lehen partean eratorpen-atzizkiez eta bigarrenean hitz-elkarketaz emandako definizio eta azalpideak, adibide solteak eta guzti, biziegi daude gai honetaz oraindik orain kaleratzen diren zenbait liburu eta liburuskatan, iturburura jo gabe bigarren edo hirugarren eskuko argibide horien muga-barrutipean asebeterik gelditzeko.

Azkue-ren ekarpen zabalaz gainera ezin ahaztuzkoak dira, bide batez eta besteak beste, orduko RIEV-en zein **Euskera**-n argitara emaniko hainbat eta hainbat artikulua: C. C. Uhlenbeck-ek RIEV-en euskal hitz-elkarketaz² esandakoak, bere labor-bilduan ere, ezin adibiderik hutsalena izango dira diogunaren fabore.

Badu gainera, buruan darabildan auzi-mauziari bertatik bertara heltzen hasteko, hitz-elkarketa dela-eta Azkue eta Uhlenbeck hurrenez hurren aipatzeak bere esanahia.

Aita Luis Villasantek, Eleizalde Bildumako 3. zerbakiaz argitara emandako *Palabras Vascas Compuestas y Derivadas*³ liburuska hain ezagunean, autore bi horien sintesi-lana egin nahi izan duelarik aski jokabide eklektikotara jo behar izan du inoiz baino gehiagotan gramatikari bataren eta bestearen ikuspegiak nola edo hala uztartu ahal izateko: "Composición impropia-

² C. C. UHLENBECK: "Quelques observations sur les noms composés en basque": RIEV 5, (1911.urtea); 5-9 orr. (G. Lacombe-k alemanetik itzulia).

³ L. VILLASANTE: *Palabras vascas compuestas y derivadas*. Colección Eleizalde, 3. Arantzazu. 1974.

mente dicha”-ren sailean sartzen ditu, horrela, Karmadharaya moduko justaposizioak, lehen begiratu batean lirudikeen baino erizpide kontrajarriagoetarako atek zabalik utzia.

Eta ez da harritzekoa: sailkapenerako orduan Uhlenbeck-ek nahiz Azkuek agertutako diferentzien iturri nagusia ez da izan ere, nere ustez, batak besteak baino galbahe estuagoa erabili izana edota nor “bere” izendapen-sistema bereziaz baliatua.

Kakoa beste nonbait dagoela esango nuke, ezer esatera ausartzekotan, korapiloa behar bezala askatuko dudan hain seguru ez banago ere. Auziak, diodan lehenbait lehen, morfologiarekin bezainbat edo are gehiago sintaxiarekin du, nere irudiz, zerikusia.

Azkueren azalpenetan zehar *elipsi* hitza ageri da behin eta berriro, hitz-elkarketaren muina definitzerakoan, giltzarri moduan: *la elipsis u omision de desinencias casuales, proverbiales, conjunciones, sufijo - d u n, frases...* eta abar. Lehen paragrafoan bertan, A. Darmestetter-en ⁴ liburu ezagunaren hasieran ⁵ ageri diren baieztapenak bere gogora ausnartuz honako erizpide hau hartzen du handik aurrerako guztiaren abiaburu: *No la unión más o menos íntima, sino la elipsis es el alma de la composición vasca*. Eta nahi adinbat adibide ematen ditu ondoren, han eta hemen, delako elipsi hori nola ulertu behar litzatekeenaz. Aipa ditzadan hemen, azaldu nahi nukeenaren frogagarri, honako banaka hauek:

- Uriarte, Mendiondo, Aizkibel, Aitorde, Otondo..., *son* Uriaren artea [...], mendiaren ondo (393, 12).
- Odeigari es [...] odeiak [...] uxatzearren ematen dan garia (393, 30).
 - *Cuando el sufijo - d u n se aplica a un adjetivo precedido de un sustantivo, su omisión da lugar a vocablos compuestos [...] posesivos: surrandi, ipurloka, auzikin, betoker [...] valen por sudur andidun, ipurdi lokadun* (399, 8).
- *Compuestos copulativos son aquellos cuya elipsis consiste en la omisión de la conjunción t a, e t a* (396, 26).

Ondorio bi ateratzen ditut nik, beste ororen gain, azalpide honetatik:

- a) Hitz-elkarketa gehienetan, funtsean, *morfema-galeraren* bat gertatzen da Azkueren ustez. Segun zein morfema galdu, halako motatakoa izango ere da hitz-elkarketa: - (e) t a *kentzen* bada kopulatiboa

⁴ A. DARMESTETTER: *Traité de la formation des mots composés*. E. Bouillon. Paris. Largaraldia 1874, 2.a 1894.

⁵ Beraz, liburuaren zati berrituan.

(aita-semeak); - d u n *kentzen* bada posesiboa (begiluze); deklinabide-atzizki bat *galtzen* bada menpetasunezkoa (behi-esne), eta abar.

- b) Hitz elkartuak forma “herrenak” dira, nolabait esateko, Azkueren azalpide horren arabera. Forma normalak, orbanik gabeak, elipsirik gabeko erlazio-morfemadunak lirateke, eta hitz-elkartuak haietatik sortuak: *quando el sufijo - d u n se aplica a un adjetivo precedido de un sustantivo, su omisión da lugar a vocablos compuestos* (399, 8). Eraikuntza d u n-dunetatik sortzen dira hortaz, oker ulertzen ez badiot, d u n-gabeak.

Lehen ondorioak, egia esango badut, ez ninduen garai batean gehiegi kezkatzen. Morfema-galera hori aspaldidanik susmagarria iruditu izan bazait ere, mesede on bat aitoritzen nion eta diot, gutxienez, ikusmolde horri: konposizio-mota desberdin bakoitza kasuan kasuko oinarriko perpaus-eskema banarekin lotzen saiatu izana. Generatibisten eraginez azken hama-bost urteotako lexikologi lanetan berriro indartzen ari den azterbideak ere, iruditzen zaidanez, parte ohargarri batez ezin ondo baizik ikusi ahal izango luke jokamolde hori.

Nolanahi ere, ordea, begien bistan dagoela deritzot, gauzak bere xeh-hean aztertzeraz bagoaz, **bihar-etzetan** moduko eraikuntza batean eta konjuntzioaren galera baino zertxobait gehiago gertatzen dela eta, oso bereziki, **errezil-sagar, artzain-zakur, hodel-gari** edo **limoi-ur** gisako izen-konposizioak ezin direla besterik gabe **Errezilgo sagar, artzainaren zakur, hodei(eta)ko gari** eta **limoiaren ur** moduko eraikuntza sintagmatikoen forma eliptikotzat hartu.

Bigarren ondorioa da ordea, askogatik ere, gutxienik betetzen nauena: zer dela-eta **gibelurdiak, hotz-beroak** edo **esne-behiak**, uso lumagalduen pare, behialako haurrak Paristik omen gentozen moduan etorri behar dute nor bere eraikuntza osatuagotik?

Zer hankatatik daude, bada, **kantu-kantari dema-eskdataozen harri-jasotzaileak** herren?

Puntu honetan ez zuen Azkuek, nere uste apalez, hitz-elkartearen muina azaltzen asmatu. Eta geroztik, oker ez banago, errazegi joan gara guztiok, Hamelingo neska-mutilak txistulariaren ondotik bezala, nora gabeko bide horretan barrena.

Badago beste esplikabide bat, gauzak gehiegi bihurritu gabe aski arrazoizko emaitzetara eraman gaitzakeena: hitz-elkarteetan ez da ezer galdu. Ez dago inolako *omisio*-rik. Hitz-elkarteak beste eraikuntza sintagmatiko guztiak bezain osatuak dira, eta ez dute inolako orbanik ez herrenik. Forma osoak dira, bete-beteak.

Esplikabide honen arabera, **hodel-gari** ez dator **hodeiak** uxatxearren ematen den **gari-aren** laburtzapenetik, **hodel-gari-tik** baizik.

E. Coseriu-k ⁶ hain aspaldi ez dela gogorarazi duenez, Brugmann-ek esana zuen bere garaian hitz-elkarteetan esanahi gehiegi ikusi nahi izan ohi dela. Jespersenek ere adierazia izan behar du, ildo beretik, hitz-elkarteek kontzeptu arteko erlazio zabal-lazoak adierazi ohi dituztela huts-hutsik, erlazio horien zer-nolako zehatzez ezer esan gabe.

N. Morciniec-ek ⁷, azkenik, *Sommerhut* moduko konposatu batean ikuspegi linguistiko hutsetik *Hut durch Sommer bestimmt* (uda-k mugaturiko *sonbrero-a*) besterik ez dagoela dio. Hots, aspaldi-aspalditik ondo ezaguna genuen mugatzaile/mugakizun harreman zaharra. Gainerako esplikazio zehatz-mehatzak, tarteko morfema-galerak barne, kasuan kasuko gauzei buruz dugun ezagueraz finkatu ohi ditugu sarritan gizabanakook, lekuan lekuko inguramendua eta egoera kontuan izanik.

Esanahiaren alorretik berriro joskerarenera itzuliz, bestetik, aski aproposak iruditzen zaizkit E. Benveniste-ren ⁸ hitz hauek: *es preciso ... considerar los compuestos no ya como especies morfológicas sino como organizaciones sintácticas. La composición nominal es una microsintaxis. Cada tipo de compuestos tiene que ser estudiado como la transformación de un tipo de enunciado sintáctico libre*. Gure hizkuntzara itzuliz eraikuntza sintagmatikoen plano beretsuan daudela alegia, berdin-berdinean ez bada ere, *trapu-saltzailea* eta *trapuaren saltzailea*; edo-eta, beste era batera esanaz, lehenengoa ez datorrela bigarrenetik, nor bere oinarriko perpaus-eskematik baizik.

Itzul-inguru guztiokin ezer berririk esaten ari ote naiz, ordea, euskal soroon? Apenas.

C. Uhlenbeck-en 1911ko artikulu labur hura irakurtzea aski da, nere ustez, orduko esplikazioen azal horiztaren pean oraingo aurkikuntza-usteko hauen enbor bereko izerdi-giharrak aurkitzeko: bertako pasarte batean esaten duenez ⁹, izan ere, euskarak hitz-jokorik ez zuen garaiko hedabide sintagmatiko zaharraren ondorengo beti gazte eta joria da hitz-elkarketa. Behinolako euskara hitz-jokorik gabea ala jokoduna ote zeneko auzia alde batera utziaz zinez arrazoizkoa iruditzen zait, gainerakoan, Uhlenbeck-en ikuspegi hori. Hemeretzigarren mendeko hainbat hizkuntzalari konparatista handiren erizpideen islada begien bistan dagoela esango nuke, gai horietan espezialistatik baino ezjakinetik hurbilago nagoen honentzat ere, azalpide horretan: aski da

⁶ E. COSERIU: *Perspektiven der Wordbildungsforschung. Beiträge zum Wuppertale Wortbildungskolloquium 9-10*. E. Brekle eta D. Kastousky, Bonn, 1977, 48-61 orr.

⁷ N. MORCINIEC: *Die nominalen Wortzusammensetzungen in den westgermanischen Sprachen*. Breslau, 1964

⁸ E. BENVENISTE: *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*. C. Klincksieck. 1967. Gaztelaniazko itzulpena, in "problemas de lingüística general" II. Siglo XXI. 1977.

⁹ *La composition se présente comme une survivance d'une période antérieure préflexionnelle* dio bertan, hitzez hitz.

horretarako, urrutirago gabe, H. Jacobi-ren *Compositum und Nebensatz*¹⁰ gihartsua eskuztatzea. Badakit noski, nere gutxijakinean ere, Jacobi-ren eritziak puntu honetan ez direla askoren, ez eta bere garaikide eta lagun Jakob Wackernagel-en ere¹¹, gogo-betegarri.

Guztiarekin ere, dena dela, ez dut uste *Compositumeko* azterpidea euskal hitz-elkarketarentzat, liburua argitara eman eta handik laurogeitazaz-pigarreneko urtean, batere antzua gertatuko litzatekeenik.

Edozein kasutan ere, hitz-elkarteen eremua oraindainokoa baino joskerari lotuago landu beharko dela esatea ez zait ausarkeria handia iruditzen.

Norbaiti gogoak emana izango ere dio, honez gero, kontu xahar guztiok zertara datozkeen galdetzea. Ur joan horrekin nongo errotarri lanean jarri nahi dudan jakin nahi izango du, alegia, batek baino gehiagok. Eta ez dakit, egiatz, ganorazko erantzunik daukadan ere. Horra, dena dela, nere ustea.

Euskal hitz-elkarketa lau hitz-andana ihartutako museo-kontua dela uste duenarentzat ez dago, seguru asko, gai honi azalpide teoriko bat ala beste eman alde handirik. Hitz-elkarketa oinarri-oinarriz eta ezer baino lehen gure joskera-bide jator, aberats eta, hainbat eginkizunetarako, ordaineko adierazpiderik gabea dela komentzitua dagoenarentzat aldiz garrantzi handikoa da, beste eginbehar asko baino agitz premiazkoagoa, hitz-elkarteen izakera sintaktiko bizi eta emankor hori ageri-agerian jartzea, bestela ere lehendik beren mintzamen-idazmenetan itxuratxarki erasanak eta zarpailduak dauden euskal belaunaldi gazteei gaur eguneko eta bihar-etzietako gizarte hiritar-industrialdu honetan bere eguneroko langune eta bizimoldeetan euskaraz jardun ahal izateko hain beharrezkoa duten hedabide sintagmatiko hau nola erabil ikas dezaten. Ikasi diot, hogeitabost urtetik beherako euskaldun gehiegik ahaztua bait dauka, baldin inoiz jakin badu, hainbat eratako hitz-elkarketak nola eratu eta zelan erabil.

Hitz-elkarketaz sintagma berriak osatzen ez dakienari erakusten hasi aurretik, edo hastearrekin batera, badago ordea beste eginbeharrik: jakinaren gaineko ezaguerarik ez izan arren hitz-elkarteak erabiltzen badakien euskaldungoarentzat hizkuntz egitura horren adierazpide teoriko bat osatuz joatea, bere izakera emankor etengabea azpimarratuz. Ondoko puntuok, bederen, kontuan hartzeakoak lirakeke, nere ustez, lan horri ekiteko orduan:

- a) Hitz-elkarte mota desberdinen banakako azalpena, bakoitzaren erabidea, emankortasun-maila eta erabilpen-eremu nagusiak zehaztuz.

¹⁰ H. JACOBI: *Compositum Und Nebensatz*. Studien über die Indogermanische Sprachentwicklung. Verlag von Friedrich Cohen. Bonn. 1897.

¹¹ J. WACKERNAGEL: *Altindische Grammatik*. II, 1. Einleitung zur Wortlehre. Nominalkomposition. Vandenhoeck eta Ruprecht. Göttingen. 1905.

- b) Osagaien arteko hitz- (edo morfema-) junturetan erabili beharreko jokamoldeak: lehen osagaiaren bukaerako a organikoa galdu ala ez; inoiz bateko beste zenbait hots-lege orain aplikatzekoa den ala ez (gari → galeper, baina safari → safal urte);...
- c) Hitz-elkarteen azentuazio-bidea, hitz-andana ihartuei honetan arduraz berezia eskainiz.
- d) Hitz-junturetarako ortografiako arauen finkapena: marratxoaren erabilera, hitzak loturik ala bereiz idatz, eta abar.

Honelako puntu batzuei badie Euskaltzaindiak, lehendik ere, erantzuna emanik.

Egindakoaren ondoan askotxo dago ordea, itsuenak ere ikus dezakeenez, eginkizun.

Eratorpenaz ez noa, entzulegoaren aspermenak ere bere mugak bait ditu, aipamenetan hastera.

Inoiz komeniko da, halere, gai horri ere piskana-piskana heltzea.

Euskaltzaindiak badu, orain urte t'erdi inguru sortua, Hiztegitza Batzordea.

Iaz eta aurten maileguzko hitzekin ibilia da eta hartan ibiliko ere da, agian, beste puskatxo batean. Ez legoke gaizki, dena dela, hurrengo pauso moduan hitz-eraketaren atalari helduko balio eta bertan, duen eraginagatik, hitz-elkarketarekin hasiko balitz.

Esanak beude, honenbestez, esatekoak nituenak. Gaizki esanak barkatu, eta hurrengorarte.